

## SEXU-JARDUERAKO OHITURA OSASUNGARRIEN PREBENTZIOARI ETA SUSTAPENARI BURUZKO IKASTAROA

UPV-EHUren aurtengo uda-ikastaroetako bat da, Osakidetzarekin garatua, eta [eSexukate](#) du izena.

IKT-tresnek, lineako formakuntzak eta egun bateko jardunaldi presentzialak osatzen dute ikastaroa, eta profesional sanitario zein ez-sanitario, irakasle, unibertsitateko ikasle eta beste arlo batzuetako parte-hartzaileentzat da. Ikastaroan [izena emateko](#) epea zabalik dago ekainaren 5a arte.

Ikastaroak guztira 25 bat ordu ditu: lineakoak 15 eta presentzialak 10. Lineakoa ekainaren 19a bitartean egin daiteke, euskaraz edo gaztelaniaz, eta presentziala ekainaren 15ean izango da, gaztelaniaz bakarrik, Gasteizko Farmazia Fakultateko ekitaldi-aretoan. Biak ala biak gainditu behar dira egiaztatzea eskuratzeko.

Informazio gehiago [www.sexukablog.com](http://www.sexukablog.com) gunean aurkituko duzue. Hain zuzen ere, atari horretaz aritu ginen iazko Osatuberrri [honetan](#).



R.Mateos. Osaguneko Sexukablog taldea. Araba ES1a

## OSAKIDETZAKO ORDEZKARITZA BATEK KATALUNIAKO OSASUN-SAILA BISITATU ZUEN HILAREN 11N



Bisitaren helburua praktika onak konpartitzea zen, betiere administrazio sanitarioko hizkuntza-plangintzaren testuinguruan.

Horrela, bada, gure ordezkariak lan-saio teknikoa egin zuten Generalitateko Departament de Salut-eko eta osasun-zerbitzuetako zuzendari, zuzendariorde, zerbitzuburu eta teknikariek. Oso saio aberasgarria izan zen, eta bertan alde bien intereseko hainbat gai azaldu eta konparatu ziren; hauek, besteak beste: hizkuntzen erabilera-irizpideak, langileen prestakuntza eta hizkuntza-baliabideak, hizkuntza koofizialen erabilera historia klinikoan, osasun-arloko terminologia, hizkuntza-eskakizuna kontratazioetan eta BAMEen harrera.

Bestalde, osasun-zerbitzuetan katalanaren eta euskararen erabileraren alde eta kontra eragiten duten faktoreen inguruan hausnartu zuten.

## EUSKARAK OSASUNGINTZAN DUEN EGOERAZ ETA LANBIDE HEZIKETAKO OSASUN-ARLOAN IZAN DUEN GARAPENAZ JARDUN BERRI DIRA ARETXABALETAN

Osakidetza giza baliabideetako zuzendari Jose Mari Armentiak hizkuntza-normalizazioan eman eta emango dituzten aurrerapausoez hitz egin zuen Aretxabaletan antolatutako jardunaldi batean, eta erakunde bereko euskarazerbitzu korporatiboko buru Xabier Arauzok eskuartean dituzten proiektuak izan zituen hizpide.

Kepa Altubek, Laneki elkarteko kudeatzaileak, eta Rikardo Lamadrdek,

Lanekiko presidente eta Aretxabaleta Lanbide Eskolako zuzendariak, berriz, Lanbide Heziketan hizkuntza-normalizazioan egiten ari diren lanaz mintzatu ziren. Izan ere, 2001az geroztik, Lanbide Heziketako euskarazko materialak sortzen ari da Laneki, eta horiek guztiak [Jakinbai.eus](http://Jakinbai.eus) webgunean biltzen dituzte. Hain zuzen ere, horretaz aritu ginen eurekin [Osatuberriren 25. zenbakian](#).

Osasun-arloari dagokionez, osasungintzako 98 material dituzte euskaraturik Laneki elkartean, eta Osakidetza-ko Euskara Zerbitzuekin hainbat lanildo bultzatu nahi dituzte: euskarazko ikasketak eta lan-eskaintzak sustatzea, materiala osatzerakoan dauden beharrak detektatzeko elkarlana, euskarazko material berriak egokitu eta trukatzeko eta elkarlan eta proiektu berriak sustatzea.



JON ESKUDERO

«Arabako osasun-zentroetan gero eta presentzia handiagoa du euskararak. Langileen inplikazioa handia da»

## kontxi rodriguez lapatza

Araba ESIko Pertsonaleko atalburua

Euskararen erabilera areagotzeko, *Egun on, Araba* proiektua martxan jarri dute Arabako osasun-zentroetan, eta emaitzekin gustura dira sustatzaileak. Halere, etorkizunari begira lanean jarraitzeko premia azaldu du pertsonaleko atalburuak

### Lehenik eta behin, zer da *Egun on, Araba* proiektua?

Euskara Batzordeak bultzatu duen proiektu bat da, Salburuko mediku baten proposamenari jarraituta. Gure helburua zen eremu administratiboetan euskararen erabilera areagotzea. Hasiera batean, osasun-zentroetara

deitzen genuen harreman telefonikoetan hizkuntzaren erabilera nolokoa zen egiaztatzeko asmoz. Erantzuna euskaraz bazen, bezero baten antzera jarraitzen genuen elkarrizketan; gaitelaniaz erantzuten baziguten, berriz, beti euskaldun batekin hitz egiteko aukera emateko eskatzen genuen.

Erantzunen arabera, puntuazio bat edo beste ematen genien. Emaitzak ez ziren izan guk espero bezain onak; orduan, hurrengo fasera jo genuen. Hiru hilabeteko txapelketa bat egitea pentsatu genuen, osasun-zentro guztiatik zein zen euskaldunena jakiteko, eta, hala, jendaurrean aitortza bat egiteko. Emaitzak erabat hobetu ziren. Bost saridun izan ziren: Araia, Iparra-Zuia, Agurain, Salburua eta Habana, hurrenez hurren. Hirugarren fasea ere amaitu berritan dago; fase horretan zera egiaztatu dugu: hiru hilabeteotan euskararen erabilera gora edo behera egin duen. Oso pozik gaude egoerari eutsi diogulako.

**Zer-nolako premia ikusi zenuten**

### **Egun on, Araba proiektua sortze-ko?**

Bezeroek eskubidea dute bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan arreta jasotzeko, eta erakundeak bide guztiak jarri behar ditu hori lortzeko. Ikusi dugunaren arabera, langileei motibazioa ematen badiezu, primeran erantzuten dute. Eta halaxe gertatu da. Guztien erantzuna primerakoa izan da, eta eskertzekoa da hori.

### **Zer egiten du Euskara Batzordeak?**

Ezeren gaineratik, Euskara Batzordeak erakundearen erabilera bermatu behar du, eta, horretarako, ekimenak eta jarduerak sustatzen ditu. Euskara Batzordearen barruan, besteak beste, *Egun on, Araba* eta Mintzalaguna proiektuak egin dira.

### **Oker ez banago, Egun on, Araba proiektuaren hasierako datuak ez ziren onak izan. Zer pentsatu zenuen hori ikusita? Kezkatu al zintzen?**

Ez, ez ziren onak izan. Egiari zor, espero genuen hori gertatuko zela. Alegia, osasun-zentroetan euskararen erabilera ez zela izango guk nahi bezain oparoa. Horretarako hasi ginen proiektuarekin, denboraren poderioz hobetzeko. Bai hobetu ere! Berriz ere esan nahi dut oso pozik gaudela.

### **Lehiaketa egingo zenuela iragarrita, osasun-zentroek jarrera aldatu al zuten?**

Erabat aldatu zuten, bai. Gogoia piztu zen langileen artean. Pentsatu zuten: «Tira, gainerako osasun-zentroak adina edo gehiago izan behar dugu, eta euskaraz erantzungo dugu». Eta horri esker entzun dugu gehiago gure hizkuntza. Arrakastatsua izan da lehiaketa. Jokoak ase gaitu, baina ez dugu nahi guztia joko hutsean gera dadin. Jendea benetan euskaraz aritzea da gure helburua, eta uste dugu jokoaren bidez alde horretara ari garela.

### **Datuek hobera egin dute, baina benetakoak al dira?**

Hori uste dugu, behintzat. Jendeak ahalegina egin du lehiaketa irabazte-

ko, eta horrekin ohitura lortzen da gero euskaraz automatikoki erantzuteko. Aldaketa hori sumatzen dugu.

### **Zailena, lortzea ez, eustea izaten omen da. Zer asmo duzue orain euskara indartzen jarraitzeko?**

Halaxe da, bai; horregatik, aurten ekintza batzuk antolatzen ari gara euskara bultzatzeko: Mintzapraktika, Mintzalaguna, hitzaldiak, saio klinikoak, ikastaroak, txangoak, Euskararen Txokoa... Zuzendaritzak interes handia dauka egiten ari garen lan horre-

«Ekintza ugari antolatzen ari gara euskara bultzatzeko. Baikor gara geroari begira»

tan. Egia esateko, zuzendarien babesa edukitzea izugarri garrantzitsua da guretzat, eta poztekoa da. Ilusioz ari gara osasun-arloa euskalduntzen, eta horretan jarraituko dugu.

### **Azalduko al zenuke proiektu horietakoren bat, adibide gisa?**

Jakina. Mintzapraktika, esaterako, Arabako Unibertsitate Ospitalean egin diren ekimenen artean dago. *Euskal kafea* izena jarri diogu. Kafearen tartea baliatu da euskaraz hitz egiteko langileon artean. Horretan oinarrituta, langileei eskaintza egin diegu astean bi egunez, bakoitzean ordubetez, tertulia euskaraz egiteko. Kafea hartuz, tertulia praktikoak eduki ditugu. Langileren batek beti ateratzen du gairen bat, modu naturalean berba egiteko. Eta horretan aritu gara. Lan-kontuak izan ditugu hizpide, gehiengutan.

### **Mintzapraktika aipatuta, azalduko al zenuke orain zer den Mintzalaguna proiektua?**

Izenak berak dioen moduan, lagunen

artean euskaraz mintzatzea da helburua. Josune Tutor *Egun on, Araba* proiektuaren sortzailea bera prest agertu zen Mintzalaguna sustatzeko. *Role Playing* delakoan inspiratuta, langileen artean egoera errealak antzeztea pentsatu zuen. Eguneroko kasuak jartzen dituzte praktikan. Astean behin, antzezpen txiki horiek egiten dituzte, eta hasi zirenetik langileen arteko harremanak ere hobetu egin dira. Gainera, euskaraz hitz egitea ohitura bihurtzen ari da. Langile denak inplikaturik daude. Horren harira, ekainaren 10ean Mintzalagunaren Eguna ospatuko dugu.

### **Uste al duzue jendeak euskaraz egiteko kontzientzia hartua duela?**

Gero eta gehiago, baina oraindik asko falta da. Horretarako ari gara hainbeste ekintza antolatzen, kontzientzia areagotzeko. Gainera, lehen mailako arretako zentro guztietan euskara-arduradun bat daukagu, eta gure ospitaleetan, pixkanaka, lortzen ari gara zerbitzuetan hobetzea. Laguntza handia ematen digute arduradun horiek, eta, haiei eta Euskara Batzordeari esker, ekintzak aurrera ateratzen dira.

### **Herritarrek eskertzen al dute osasun-zentroek erantzuna euskaraz ematea?**

Bai, gero eta gehiago. Batez ere, zentro jakin batzuetan: Zabalganen, Salburuan, Legution... Hau da, jende gaztea bizi den eskualdeetan edo herrietan. Etorkizunean hobetzen joango garela espero dugu, gero eta gazte jende euskaldun gehiago izango dugulako.

### **Zer moduz dago euskara Araban?**

Azken urteotan asko hobetu da; gazteek, oro har, euskaraz hitz egiten dute ikastetxeetan, eta gurasoak saiatzen dira beren seme-alabekin euskaraz egiten. Horregatik, nabaritzen da jendeak gero eta gehiago hitz egiten duela. Etorkizunari begira, baikorrak gara, baina badakigu lan asko egin beharra daukagula



## gramatika

### SENDATU EGIN DA!

Nolabait esateko, galdegaia da esaldi batean informatiboki garrantzi gehien duen osagaia, edo, beste era batera esanda, esaldi batean berria den edo azpimarratu nahi den zerbait jakinarazten duen atala.

Batzuetan esaldiko aditza da galdegaia, eta aditz hori perifrastikoa bada (aditz nagusia eta laguntzailea baditu), *egin* tartekatzen da aditzaren garrantzia azpimarratzeko, hau da, hura indartzeko: **Irabazi egingo dugu!**

Indartze hori, izatez, bizkaiera eta gipuzkeraren ezaugarri bat da, eta horietara joz gero aise aurkituko ditugu *egin* horren adibide egokiak; esate baterako, euskara batura ekarritako hauetan:

**Itsutu egin zen gerran.**

**Kontuz, horrek aditu egiten din!**

**Akatu egingo haut!**

**Argaldu egin haiz, adiskidea!**

**Horrek ezkondu egin gura du.**

**Orain matrimonioak dibortziatu egiten dira.**

**Ogerlekoa diru handia (zen), meriendatu egiten zenuen ogerlekoarekin, eta sobratu!**

**Intxaurra heltzen hasten denean gaineko mintza arrakalatu egiten zaio.**

Horrela esanda erraza ematen du, baina azken boladan batean eta bestean entzuten eta irakurtzen denaren arabera, argi dago ez dela horrela, barra-barra erabiltzen baita testuinguruan horretarako arrazoi sendorik ez delarik:

**Intraneta duten erakundeen zerrendan BOMS gehitu egin da.**

**GIB/HIES: jokaera arriskutsuen igoera detektatu egin da.**

**Alonso (Xabi) jokoz kanpo geratu egin da.**

**Zentzu honetan aipatu egin zuen gizarte-ekintzaren kudeaketa sofistikatuz doala eta...**

**Batzordeko idazkariak azaldu egin du mahai-gainean dagoen proposamenean kopuru bat finkatzen dela eta...**

**Behar ziren baliabideak jarri ditugu herritarrek zaindu egin ahal izateko.**

**Guretzat, ohore handia da aitzindari izan egin ahal izatea.**

Batzuetan, ordea, ez da horren zaila erabiltzen asmatzea:

- Ez dago zerbitziburua; irten egin da.
- Aspaldi honetan, aldatu egin zara; lehen, askoz atseginagoa zinen.
- Erosi egin ditut tomateak; inork ere ez dizkit oparitzen azken bolada honetan.
- Ez, ez nien azaldu zer zen legen beltza; aipatu egin nien, hori baino ez.

Eta, are errazago asmatzen da honelakoetan:

• «**Zer gertatu zen** bileran?» galdetzen badigute, «Luze jo zuen» erantzun dezakegu, edo, agian: «**Aspertu egin ginen**».

• Alavesen hurrengo partidaz galdetuz gero, berriz, ez dudarik izan: «**Irabazi egingo du**».

Baina beste batzuetan, testuingurua ondo ezagutu gabe, ez da erraza ebatzea esaldi *egin*-dun batzuen egokitasuna. Antza, aditza galdegaia izan gabe ere erabili omen daiteke *egin* balio berezi batekin; baina, hala izanik ere, ez dirudi egokia denik aditza besterik gabe indartzea edo, are gutxiago, mendeko esaldietan erabiltzea: baldintza, erlatiboa, -lako, -nean, subjuntiboa...

Iturriak: [Irale](#), [Ikasbil](#), [Mendebalde...](#)

## agenda

### ETIKARI, HUMANISMOARI ETA ZIENTZIARI BURUZKO ELKARRIZKETAK

«*La igualdad es una buena inversión*».  
M. Carmen Gallastegui ekonomialaria, Mariasun Landa idazlea eta Itziar Vergara Donostialdea ESIlkoa.

Ekainaren 1ean, Donostian, Kursaal.

☞ [web-orria](#)

### 2016-2017 IKASTURTEKO EUSKARA- IKASTAROAK

Lanorduz kanpoko ikastaroetarako izena emateko epea ekainaren 8an bukatuko da.

☞ [web-orria](#)

### 11. OSTEOPOROSI-IKASTAROA

Ekainaren 16an, Aretxabaletan, Otalora Jauregian.

Antolatzailea: Debagoieneko ESIlko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzua.

☞ [web-orria](#)

### HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO 2016KO 1. DEIALDIKO AHOZKO PROBAK

Aurreikusita dagoenez, ekainaren erdialdera egingo dira, 15, 16 eta 17an, EAEko hiru lurraldeetan.

Deitutakoen zerrenda eta ahozkorako egunak, lekuak eta orduak ekainaren 10ean argitaratuko dira.

☞ [informazio gehiago](#)

### UEU, UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN 44. UDA-IKASTAROAK

Baionan, Donostian, Eibarren, Iruñean...

☞ [web-orria](#)

### UPV/EHU-REN XXXV. UDA-IKASTAROAK

«*Irakurketa-estrategiak mindfulness edo arreta osoarekin uztartuta*».

Ekainaren 16 eta 17an, Donostian, Miramar Jauregian.

«*Euskararekiko gizarte-erantzukizuna akademiaren eta gizartearen kultura-aldaketan*».

Uztailaren 5 eta 6an, Bilbon, Abandoibarreko Bizkaia Aretxean.

«*Buru-osasuna eta bizi-kalitatea*».

Uztailaren 7 eta 8an, Donostian, Miramar Jauregian.

«*Nola bizi dolua eta galerak ikastetxeetan*».

Uztailaren 26 eta 27an, Donostian, Miramar Jauregian.



OSASUNA  
BI GAIXOALDIEN ARTEKO  
TARTE IRAGANKOR HORI  
BESTERIK EZ DA.

HORREGATIK  
EZ DU EZER ONIK  
IRAGARTZEN.  
(W. CHURCHILL)

